

Duela 500 urte sagardoa nola egiten zuten erakutsiko dute Igartubeiti museoan

Sagardorik onenei diplomak banatu dizkie Foru Aldundiak egitaraua Atzo goizean inauguratu zuen Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara diputatuak Sagardo Astea Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserri museoan.

Urriaren 14ra bitartean duela 500 urte sagardoa nola egiten zuten erakutsiko dute, baserriko dolarea martxan jarrita. Urtero saiatzen dira antolatzaileak egitarauaren barruan berrikuntzaren bat sartzen, eta aurten Hazitik lihora erakustaldia prestatu dute. Sagar Asteari bukaera emateko, berriz, sagardotarako sagarrei buruzko hitzaldia entzuteko aukera izango da hilaren 14an.

Astelehen honetan, urriak 12, egingo dute Segurako Plaza Zaharreko Lagunen Elkartekoek Hazitik lihora izeneko erakustaldia. Agorlihoa landuko dute Erdi Aroko arropak jantzita, eta pausoz pauso xehetasun guztiekin prozesu osoa irudikatuko dute, lihoa egiteko beharrezko haria lortzeraino. Urriaren 14an, asteazkena, Foru Aldundiko Fruitu Garapenerako Ignazio Javier Larrañaga teknikariak Gipuzkoako sagardotarako sagarrak lelopean hitzaldia emango du Igartubeitiko Interpretazio Gunean.

Ohiko jarduerak ere ikusgai

Bi ekitaldi berezi horiez gain Sagardo Asteari lotutako ohiko jarduerak ere burutuko dituzte. Sagar astearen baitan Ezkio-Itsason bildutako sagar bariatateak ikusgai izango dira. Erakusketa Yartuk antolatu du, Udalak lagunduta.

Sagar zanpaketak egunero izango dira, goizez. Asteburuan eta Pilarika egunean goizez bi zanpaketa egingo dituzte, eta arratsaldean beste bat. Arizkungo Jo ala Jo taldekoek sagarrak kirikoketa erritmoan zanpatuko dituzte, larunbatean, igandean eta astelehenean. Kirikoketa sagarra txikitzeko piseiekin egiten den txalapartaren aldaera da. Antzina dolare baserrietan ohikoa zen ohitura Igartubeitin gogora ekarriko dute, usadio zaharrak berreskuratu eta ikertzen dituen elkarte horren eskutik. Bestalde Ezkio-Itsasoko eta Yartu kultur elkarteko kide diren bost bizilagunek XVII. mende hasieran baserrian bizi izandako Kortabarria familia antzeztuko dute. XVI. mende bukaerako eta XVII.eko hasierako janzkerek jantzita baserria erakutsiko diete bisitariei, eta beraien zereginei buruz hitz egingo dute. Bisitariak elikadurari, sagardogintzari, ereiteari eta altzari konponketari buruzko informazioa lortu ahal izango dute, besteak beste. Larunbatetik astelehenera Sagardo Asteko II. Argazki Digitalen Lehiaketa ere antolatu dute. Aurten helduek zein gaztetxoek parte hartu ahal izango dute.

Sagardorik onenei diplomak banatu dizkie Foru Aldundiak
Ezki-Itsaso
Oiarbide sagardotegiko Sebastian Zabalegik irabazi du Foru Aldundiaren
VIII. Sagardo Lehiaketa, 77 punturekin.

Igartubeiti baserrian Sagardo Astea inauguratu dutela aprobetxatuz,
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Jatorrizko Sagardo Boteilatuaren VII.
Lehiaketako diplomak Igartubeitin banatu zituzten atzo. Landa
Ingurunearen Garapeneko diputatu Rafael Uribarrenek eman zizkien
diplomak sarituei. Lehenengo saria, 2.250 eurokoa, Astigarragako Oiarbide
sagardotegiko Sebastian Zabalegik jaso du. Zabalegik 77 puntu eskuratu
zituen lehiaketan. Bigarren saria, 1.500 eurokoa, Usurbilgo Urdaiara
sagardotegiko Patxi Azkonobietak eskuratu du (73 puntu); eta hirugarren
saria, 750 eurokoa, Usurbilgo Saizar sagardotegiko Napoleon Lertxundik
jaso du (71 puntu).

32 parte-hartzaile

Aurtengo lehiaketan Gipuzkoako 32 sagardotegik parte hartu dute.
Horietatik bi ziren goierritarrak, bat Ataungoa eta bestea Zeraingoa. Finala
ekainaren 6an egin zen.
egitaraua

Gaur eta bihar Ordutegia. 10:00-14:00.

11:30. Zanpaketak. Gipuzkoa, Araba, Bizkai eta Nafarroako ikastetxeei,
jubilatuei eta euskaltegiei zuzenduta.

Larunbata, igandea eta astelehena

Ordutegia. 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.

11:00, 12:30 eta 17:00. Zanpaketa, antzezpenak eta kirikoketa.

Bertsolariak eta albokaria, trikitalariak eta talogileak ere bertan izango dira.

Astelehena

16:30. Lihoaren prozesuaren erakustaldia, Segurako Plaza Zaharreko
Lagunen Elkartearen eskutik.

Asteartea

Ordutegia. 10:00-14:00 eta 16:00-19:00.

11:30 eta 17:00. Zanpaketa, Gipuzkoa, Araba, Bizkai eta Nafarroako
ikastetxe, jubilatuei eta euskaltegiei zuzendua.

Asteazkena

11:30. Zanpaketa, Gipuzkoa, Araba, Bizkai eta Nafarroako ikastetxe,
jubilatuei eta euskaltegiei zuzendua.

19:00. ' Gipuzkoako sagardotarako sagarrak ' hitzaldia. Hizlaria: Ignazio
Javier Larrañaga, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fruitu Garapenerako
teknikaria.